8 Oharrak

A Atarikoentzako oharrak

B Izena emateko orria

C Kexak idatziz biltzea

D Berokuntza instalazioaren urteko hustuketa

E Berokuntza sistema betetzea

F Igogailua nola erabili

A Atarikoentzako oharrak

Ohar honen bidez adierazten dizuet datorren martitzenean, hilak 20, Naturgas enpresako teknikariak gure atarian izango direla gas instalazioa aztertzeko. Goizeko 10:00etan hasiko dira lehenengo pisuan eta gorenekora iritsi arte jarraituko dute.

Bergaran, 2004ko urtarrilaren 9an

Bihar, eguena, arropa batzeko kanpaina egingo du Karitas-ek eta horretarako arratsaldeko 6etan pasatuko dira ataritik. Atarian bertan, poltsan sartuta, utzi ditzakezu arropak.

Aretxabaletan, 2004ko otsailaren 28an

Egun bi barru atariko kristalak garbituko dituzte Arrasate Garbiketak enpresakoek. Hortaz, jakizu goizean izango direla atarian.

Eskoriatzan, 2004ko uztailaren 31n

Kalean obra batzuk egin behar dituztela-eta, jakizu datorren astean, hilaren 8an, goizeko 10:00etatik 13:00ak arte ez dugula argirik izango gure etxeetan. Ohartxo hori pasatu digu Iberdrolak.

Bergaran, 2004ko ekainaren 21ean

A Atarikoentzako oharrak

Jaun/andre hori:

Badakizu 10 urte beteko direla laster etxea egin zenetik eta oraintxe erreklamatu behar ditugula okerrak eta akatsak, apurtu direnak eta antzemandako hutsak. Hortaz, egun hori baino lehenago eskaerak niri pasatzea komeni da.

Oñatin, 2004ko apirilaren 10ean

Garbiketa egiten duen pertsonak adierazi digunez, datorren hilean zapatu eta martitzenetan garbituko ditu atariko eskailerak.

Arrasaten, 2004ko martxoaren 5ean

Orain erabiltzen ari garen antena parabolikoak akats batzuk izan ditu, eta horiek konpondu eta gero aldaketa txiki batzuk ere izan ditugu telebista kateetan. Aurrerantzean, GoiTB eta ETB1 33. eta 56. kanaletan ikusiko ditugu.

Eskoriatzan, 2004ko irailaren 7an

Sotoko trastelekuren bat erosi nahi baduzu, jarri zure datuak orri honetan:

IZEN-ABIZENA	PISUA ETA LETRA

Behin zerrenda osatuta, bilera egingo dugu, trastelekuak aukeratzeko.

C Kexak idatziz biltzea

Akatsak konpontzeko eskatzea Etxeberri enpresari

Joan den otsailaren 18an urbanizazioko atarietako arduradunen bilera egin eta erabaki genuen bakoitzak bere etxebizitzan edo atarian antzeman dituen arazoen berri idatziz ematea, kexa guztiak batera aurkezteko Etxeberri enpresari. Horregatik, idatzi bat sartu dugu postontzietan, antzemandako akatsen berri eman dezan bakoitzak. Sartu orri hori atariko arduradunaren postontzian, otsailaren 25a baino lehen.

Eskerrik asko,

Urbanizazioko administratzailea

BEROKUNTZA INSTALAZIOAREN URTEKO HUSTUKETA

Urtero bezala, aurten ere, berokuntza instalazioa hustuko dugu, hainbat konponketa egin eta instalazioak berritzeko. Ekainaren 16an, goizeko 9:00etan, hustuko dugu instalazioa eta uztailaren 9an bete berriro, goizeko 9etan.

Hortaz, bada, aukera ona da norbaitek aldi horretan bere etxeko berokuntza sisteman egin beharreko konponketak egiteko. Adibidez, erradiadore bakoitzaren pasoko giltza biak, hondatuta egonez gero edo zaharrak izanez gero, aldatzeko gomendatzen dizuegu.

Gogora ekarri nahi dizuegu, adierazitako egunetan barik beste egunen baten hustu nahi izanez gero, Administrazioari jakinarazi beharko diozuela, eta 150 euro ordaindu.

Aramaion, 2004ko ekainaren 10ean

Batzordea

E Berokuntza sistema betetzea

OHARRA

Datorren irailaren 4an berokuntza sistemaren zirkuitua beteko dugu. Hori dela eta, etxean obrarik egin baduzu, berokuntza instalazioa zaintzea komeni da, zer gerta ere.

Aramaion, 2004ko irailaren 1ean

Batzordea

OHARRA

Joan den asteburuan, igogailua gelditu egin zen solairu artean, pertsona gehiegi sartzeagatik (5). Berriro horrelakorik ez gertatzeko, segurtasun arauak betetzeko eskatzen dizuegu, eta ez sartzeko 4 lagun baino gehiago.

Aramaion, 2004ko otsailaren 7an

Batzordea